

Koldo Mitxelenaren Lan Guztien aurkezpen ekitaldirako (Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregia, 23/III/2011)

Joseba A. Lakarra – Iñigo Ruiz Arzalluz

Agintari jaun-andreok, adiskideok, lagunok,

Egunon

1987ko azaroan Diputazioak baietza eman eta 1988ko abenduaren 20 aldera aurkeztu zen hementxe bertan Koldo Mitxelenaren *Sobre historia de la lengua vasca*-ko liburu bikotea; bilduma hark ia 100 artikuluz zekartzen, mila orrialde pasatxotan — mantxa zabal eta aski betearekin—, *Sobre el pasado de la lengua vasca* 1964ko liburuxka bikaina sarreratzat zuelarik.

Bilduma hura orduan eta oraindik faltan den euskararen historiako eskulibururik hoberena bailitzan erabili ahal izan genuen zenbait urtez. Hiruzpalau beranduago, liburua agortua genuen eta haren berrargitalpena zenbait aldiz eskatu ondoren, 2002an lortu zen azkenik Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena, ez *SHLV* bilduma soila baizik eta Koldo Mitxelenaren *Lan Guztiak* ekoizteko eta argitaratzeko. Lau urtetan egiteko aurreikusi eta benetan halako bi eraman dituen egitasmo honen historiaurreak ia hogeitau urte ditu, bada, izan.

Neurri batean, nagusienean, Julio Urkixo Mintegiko kideok, — maisuak 1987ko urriaz geroztik utzitako hutsunea bere lanen irakurketaren bitartez apal eta bera zitekeela begitandurik—, *ASJU*-ren Gehigarrietan bildu nahi izan genituen haren liburu garrantzitsu eta ezinutzizkoak; hala egin genuen '90eko hamarkadaren hasieran bertan

Textos arcaicos vascos eta *Lenguas y protolenguas*, lehen Madril eta Salamancan ateratakoekin, Julio Urkixo Mintegiaren argitalpenetan elkartuaz egilearen *Fonética histórica vasca* eta Landuchioren hiztegiaren azterketarekin. Hor ziren, halaber, *ASJU*-n bertan emanak zituen hainbat artikulu bikain ere, “Lengua común y dialectos vascos”, Oihenart eta *Refranes y Sentencias*, Urte eta lapurtera zaharraren azentuaz edo *Peru Abarka*-ren testuaz, demagun. *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, biok zaindutako ikasle askoren eskererakutsia ere horiei gehitu zitzaien 1991an.

Alabaina, ezagun denez, Koldo Mitxelena ez zen ‘90en hasieran eta ez da orain ere hizkuntzalari eta filologo ofizioko hutsentzako bazka — euskaldunak izan edo ez izan—; baita euskaltzaleentzat edo, are gehiago, bere gauzez ardura pixkat duen euskaldun ororentzat ere. Hortik zetoreen bai guretzat eta baita bilduma hau lagundu duten erakundeentzat honelako edizio bat —ez oso ohikoa gure artean, bide nabar— egiteko asmoa.

Ezaguna denez, Koldo Mitxeleenaren *klasiko* hitzaren definizio maltzurra honakoa zen: “mundu guztiak aipatu eta inor gutxik irakurtzen duen lan edo egilea”; ez genuen, baina, horrelako klasikorik nahi gure artean. Ohiko adieran Mitxelena klasikoa zen aspalditik: 1977an Torrealdayk bere liburu famaturako euskal idazleei gehien miresten zituzten egile biziez galdetzean, Mitxelena gehien erantzunetan zen; alabaina, esango genuke gutxienez “Asaba zaharren baratzea”-z geroz edo bere euskal lanek emana ziotela gidaritzat eta ezagutza ia orokorra euskaltzaleen artean. Euskalarien sailean ez da erraz mugarria jartzen, baina “Las antiguas consonantes vascas”-erako (1957) —argitaratzen hasi eta zortzi urterako— bai behintzat, ‘60en hasierako liburu arrandiatsuak baino lehen, nolanahi ere.

Ez jakin idazkerarekikoak nola dabiltzan egungo egunean; ikerketa lanei dagokienez —bereziki bere esparru propioztat jotzen zuen hizkuntzaren historia eta hizkuntzalaritza historikoan— Mitxelenaren lanak punta-puntakoak zein oinarri-oinarrizkoak dira, ezinbestekoak, alegia, egoeraz jabetu zein aurrerago jo nahi duenarentzat. Praktikan lehenagokoak gainditu eta interes arkeologiko edo historiografiko ia hutseko bilakatu zituen, hau da, “klasiko aurreko” bere harako definizio hartan.

Gaur aurkezten dizuegun eta aurki oso-osorik eskuratu ahalko duzuen bilduma 1988an gela honetan bertan aurkeztutakoaren halako lau edo dateke, lan zientifiko hutsak kontuan hartuaz ere. Hamabost liburuki dirateke, hamalau Mitxelenarenak berarenak gehienbat eta bat, azkena, guk erantsia:

- I. Hizkuntzalaritza historikoa,
- II. Euskalaritzatik kanpoko hizkuntzalaritza,
- III. Hizkuntzalaritza paleohispanikoa,
- IV-IX. Euskararen alderdi sinkroniko nahiz diakronikoak: fonetika, morfologia, dialektologia, lexikografia, etimologia...,
- X. Hizkuntzaren batasun prozesua,
- XI-XII. Euskal testuei buruzko lanak, hastapenetatik XX. mendera arte.
- XIII. Euskal literaturaren historiarekiko eta XX. mendeko euskal testuei buruzko lanak.
- XIV. Egilearen autobiografiazkoak, itzulpenak, literaturazkoak eta zinemazkoak, kultura eta gizartearekikoak... obraren alderdi pertsonalena eta polemikoa.

Liburukiak gaika antolatu dira, jakina, —ez hizkuntzaka—

orokorretik edo oinarrizkotik abiatuaz bereziagora, liburu, artikulua, atal nahiz iruzkin edukinari makurtuaz orobat. Honek liburukien irakurketa mota desberdinak ahalbidetzen ditu baina beste edozein baino sakonago eta emankorragoak, guk uste; are gehiago, begien aurrean duzuen bildumaren eta gure argitalpen honen ezaugarri garrantzitsua erraztuaz.

Gogoan dugu 1988an *SHLV* ateratzean *OEH*-koek eta beste hainbat euskalarik han aztertutako hitzen aurkibidea nahi eta eskatzen zutela; orduan ez genuen, ordea, horretarako baliabiderik. Oraingo honetan, aldiz, aurkibideak —ez soilik aztertutako hitz ugariena, baita aipatutako pertsona-izenena eta gai edo kontzeptuena ere— prestatu ditugu; izan ere, bere garaian erakundeei egitasmoa azaltzean nahita nahiezkotzat aurkeztu genien puntu hau.

Liburuki bakoitzean, bada, akabuko %10a edo, hiru aurkibide mota horiei eman diegu eta horien erabateko garrantziaz jabeturik, hamabostgarren liburukian ezarriko ditugu, Koldo Mitxelenaren bibliografia eguneratuarekin eta bilduma osoko testu guztiak barnean eramango dituen CD-arekin batera. Hor izango den aberastasuna eta irakurle arruntak zein ikertzaileak bertan izango duen laguntza zaila da neurtzen. Adibidetxo bat jartzeagatik, egungo egunean eta 1978tik, euskal hiztegi etimologiko baliagarriena —Juanjo Arbelaizen *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*— aski erraz gainditua geldituko bide da; ez da, noski, Koldo Mitxelenaren Lan Guztien aurkibideek ekarriko duten emendio bakarra: izan ere, irakurle arruntarentzat “Mitxelena irakurtzeko gida” gisakoak eta ikertzailearentzat baliabide berri eraginkor izango dira, segurki, hemendik aitzina.

Mitxelenaren testuak argitaratzeko moduz ere komeni da pare

bat hitz esatea, denak ez baitu berdin balio eta facsimileak eta Internet oso laguntza politak direnean ere ez baitute ezer ordezkatzeko ahalzaletu berri zenbaitek pentsa lezakeenaren aurka. Norbaitek esan lezake zertarako den honelako edizio bat Interneten garaian; alabaina, edozein formatotan ere gauzek txukun argitaratuta egon behar dute, gero edozein euskarritan eta lekutan jarriko badira ere. Letrak maite dituen pertsonak —filologoa izan nahiz ez izan— badaki idazkiak ez argitaratzea bezain larri dela horiek modu zabar eta baldarrean ematea, usuenik are larriago ere. Badira adibide ugari euskal tradizioan hemen ematen hasi behar izateko eta bada zeresanik Ferdinand de Saussure-ren *Cours de linguistique* egilea hil ondotik atera zutenen lanarekin ere, aspaldi ezagun denez. Koldo Mitxelenaren testuren bati inoiz honelakorik egokitu zaio —desegokitu, hobe—, eta agertu izan da egilearenak ez ziren huts eta akatsez horniturik, argitaratzaileak eskuartean zuena zer zen ongi jabetu gabe eta inoiz ez gaiak eta ez hitzak ezagun ez zituelarik.

Honelakoak saihesten saiatu gara, jakina, egilearen obra osoa gogoan harturik eta orijinaletara, iturrietara eta bibliografia sekundariora joaz. Dozenaka ez eze ehundaka ere izan dira zuzenketak ia 7000 orrialde hauetan; asko eta asko marka berezirik gabe doaz, txikikeriak izanik edo baita huts larriak izanik ere, zalantzarik ametitzen ez dutenak. Alabaina, zalantzarik txikiena sor zezaketen orotan beren-beregi ohartu dugu irakurlea eta baita arazoak garbitzeko datu guztiak —labur baina argi— hari eman ere.

Prestaketa lanen tamainaz eta pisuaz ideia labur bat egiteko zinemari buruzkoak eta bestelako zenbait adabaki alde batera utzirik ere, oraindik ehundaka artikulua eta ohar dira bilduma honetan, dozenaka aldizkari, akta eta bestelako argitalpen ezberdinetatik

jasoak. Honenbestez, hemen tipografikoki bateraturik aurkituko dituzuen lanak zeinek bere iturriko estiloa zuen, aski ezberdinak usu eta behin baino gehiagotan barneko koherentzia handiegirik gabe: hots, tituluak eta azpтитuluak, letra etzanak, beltxak eta enparatuak, aipuetako sangratuak, bibliografien eta oharren antolamendua zeinek bere modura emanak, sarri modu bitxi eta aldrebesean.

Horrezaz landa, erreferentzia bibliografikoak ia osin hondorik gabekoak genituen; horko egile izen eta deiturak, lanen orrialdeak, aldizkarien eta bildumen deizio eta gainerako ezaugarri ugari-amaiezinak zuzendu, zehaztu eta osatu beharra zegoen... goian aipatu bateraketaz landa. Koldo Mitxelenaren lanak direlarik erabilienak eta aipatuenak euskalarien artean, ezinbestekoa zen egiteko hau burutzea geroztiko bibliografia etorkizunean baliagarri izan zedin. Hortik dator norbaitek txikikeriatzat jo lezakeen gure argitalpenaren xehetasun erantsi bat ere: alegia, liburu, artikulua, kapitulu, ohar nahiz bestelakoek bilduman dagozkien orrialde zenbakiez landa, enparatukoak ere badituzte ertzetan, lehen edizioetakoak, hain zuzen: honela, etorkizunean ikertzaileek bata zein bestea erabili ahalko dute eta, gainera, 60 urte hauetan Mitxelenaren lanez egin diren milaka eta milaka aipu eta erabilerek beren balioari eutsiko diote, informazio zientifikoaren galera onartezinik gabe.

Labur esateko, forma edukinaren duin izan dadin saiatu gara, zor genuen legez, Mitxelenaren idazkiak egokiago eta errazago irakur daitezen eta beren erabilera oparoago eta emankorrago.

Eskerrak ematerakoan, asko dira era batera edo bestera lagundu gaituztenak hemen beren izenez eta banan-banan gogoratzeko; aipatuak dira, halere, Lan Guztien hitzaurrean eta hainbait baita

liburuki bakoitzeko egiletasun aitormenetan ere. Haien laguntza gabe Koldo Mitxelenaren Lan Guztiak ez ziren inoiz argitaratuko, edota ez bederen argitaratu ahal izan diren bikaintasunaz. Ezin ahanztz Koldo Mitxelenaren familia (artean arestian joandako Matilde), 2002an Diputazioan eta Unibertsitatean ziren —Luis Bandres eta Lore Leanizbarrutia batean, Manu Montero eta bere taldea, Antonio Rivera barne, bestean— agintari zuhur eta adoretuak, ezta horien ondotik Erakunde bietan etorri direnak ere, beren laguntza eta eroapenagatik, jakina.

Azken txanpan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak eta Kultura Sailak laguntza oparoa eman digute, ontzia itsasertzean hondatu beharrean portura iristen.

Milesker anitz guztiei, bada; eta zorionak Koldo Mitxelenaren irakurleei eta irakurletzakoei: har eta dasta, ez besterik.